




Herabetasuna

1 Zer ari da pentsatzen Emoziotegiko 42-43. orrialdeetako irudiko txoria? Idatzi.



A large, cloud-shaped orange outline containing three horizontal lines for writing the answer to question 1.

2 Bilatu letra-zopan Emoziotegiko 42-43. orrialdeetako irudian agertzen diren elementuei dagozkien sei hitz. Idatzi.

P	K	O	I	L	A	R	A
K	M	Y	N	A	U	Y	L
A	P	L	A	T	E	R	A
T	C	O	M	E	E	A	I
I	I	R	Z	L	K	W	R
L	T	E	R	I	I	E	O
U	A	A	E	A	E	T	X
A	T	K	L	G	A	G	T

Five horizontal lines for writing the six words found in the word search.

3

Erlazionatu Emoziotegiko 42. orrialdeko testuko adierazpen hauetako bakoitza kontrako esanahia duen beste batekin.

- naturaltasunez jokatzea lasai sentitzea
- ez nabarmentzen saiatzea modu desatseginean jokatzea
- maitekor jokatzea nabarmen geratzea
- deseroso sentitzea modu behartuan jokatzea

4

Adierazi esaldi bakoitzean nabarmenduta dagoen pertsona **arrotza (A)**, **fidatzekoa ez dena (F)** edo **mehatxatzailea (M)** den.

- Laidak ez zuen **Jokin** inoiz ikusi.
 - Unaik** zenbait aldiz egin du lapurreta auzoko supermerkatuan.
 - Bizilagun berriak, zeina ez baitugu oraindik ikusi, **Li** du izena.
 - Oierrek** esan dit txantxa astun bat egingo didala.
 - Anderrek** ez du inoiz betetzen emandako hitza.
 - Nadet beldur da **Saioak** eta **Sarak** haren marrazkia puskatuko ote duten.
- Ezagutzen duzu mota horietako pertsonarik? Nor dira?

5

Idatzi Emoziotegiko 42. orrialdean "bertakoa ez dena, atzerrikoa; atzerritarra" esanahia duen hitza.

6

Irakurri Enarari gertatu zitzaiona, eta idatzi eskatzen dizkizuten datuak.

Enara

Astehenean gure gurasoentzako kontzertu bat eman genuen musikako eskolan. Nik biolina jo nuen. Lehenengo ilaran jarri ninduten, baina berehala joan nintzen azkenekora: ez nuen nahi inork ikusterik.

Ez nintzen eroso sentitzen agertokian, eta bero handia nuen. Ezin nuen musikaz gozatu; partiturari modu behartuan jarraitzen nion. Gero, hatzak zurrundu egin zitzaizkidan, eta ezin nuen ondo jo. Azkenean, jotzeari utzi nion eta geldirik geratu nintzen, biolina eskuan nuela, kontzertua amaitu zen arte...

● Nola saiatzen da Enara nabarmen ez gertatzen?

● Naturaltasunez jo al dezake Enarak? Zergatik?

● Eroso al dago Enara? Zertan nabari duzu?

● Blokeatu egin al zen Enara? Noiz?

● Zer egin zuen handik aurrera?

7 Irakurri, eta erantzun galderari.

Laida

Atzo gure eskolako talentu-lehiaketan parte hartu nuen. Bakoitzak ondoen egiten dakigun hori egin behar genuen. Nik baloia nola kontrolatzen dudan erakusteko erakustaldi bat egin nuen: ukituak buruarekin, oinarekin, geldiketak... Irten aurretik, pixka bat urduri nengoen; baina ikusleak ikusi nituen bezain laster jakin nuen primeran egingo nuela.

Xabi

Atzo amarekin izeba Karmen ikustera joan nintzen, egoitza batean bizi baita. Izebak gozoki batzuk oparitu zizkidan. Izebaren lagunek denek batera hitz egiten zidaten eta galderak egiten zizkidaten... Oso atseginak ziruditen, baina nik ez nekien zer erantzun. Lehenbailehen handik alde egin besterik ez nuen nahi.

● Nor agertzen da herabe?

● Gauza bera gertatuko zitzaizukeen zuri? Eta beste egoeran?

● Zer uste duzu egin dezakezula herabetasuna gainditzeko?

8

Markatu hauetakorik egin duzun **herabetasuna** sentitu duzunean.

- Aitaren edo amaren atzean ezkutatu.
- Egiten dizkizuten galderei ez erantzun.
- Korrika ihes egin.
- Negarrez hasi.
- Barrez hasi.
- Besterik egiten duzu?

- Zergatik jokutzen duzu horrela?

- Zer egoeratan egiten duzu hori?

- Zerk sentiarazten zaitu deseroso egoera horietan?
